

PRENTSA OHARRA

2021eko Urdufolk jaialdirako izen-emateak abiatu dira

- *Izen-emateak abuztuaren 30ean hasiko dira, labur.eus/Urdufolk2021 online galdetegian; abuztuaren 30tik irailaren 3ra egongo da irekita. Bestalde, irailaren 1ean, 2an eta 3an, aurrez aurreko inskripzioak egingo dira Alondegia Gizarte Etxean.*

Urduñan, 2021eko abuztuaren 30ean.- Urdufolk jaialdiaren 9. edizioa egungo pandemia egoerara egokituko da, iaz bezala. Beste behin ere, egun bakarrean ospatuko da, irailaren 4an. Hiru kontzertu eskainiko dira **Eskola Publikoko patioan** eta kontzertu txikiak antolatuko dituzte Foru Plazan, Gran Vian, Gernika Plazan eta Juan de Garay auzoan.

Eskola publikoko patioan, **El Trasno, Joseba Tapia** eta **Faltriqueira** arituko dira oholtzaren gainean, 19:30etik aurrera. Horrez gain, El Trasno Asturiaseko gaita bandak hainbat kontzertu txiki egingo ditu hirian, 13:00etatik aurrera, Foru Plazan, Gran Vian, Gernika Plazan eta Juan de Garay, hain zuzen.

Aurreko edizioan bezala, COVID-19aren aurkako segurtasun neurriak hartuko dira: edukiera mugatua, eserlekuen arteko distantzia, maskara uneoro erabiltzea, gel hidroalkoholikoaren erabilera, etab. Berrikuntza moduan, osasun-egoerari egokitutako txosna zerbitzua (edari eta mokaduak) egongo da aurtan.

Edukiera mugatua izango denez, aldeztu aurretik izena eman beharra dago jaialdira joateko. Sarrera doakoa izango da, baina aldeztu aurretik eskuratu beharra dago.

Izen-emateak

Izen-emateak abuztuaren 30ean hasiko dira, labur.eus/Urdufolk2021 online galdetegian; **abuztuaren 30tik irailaren 3ra** egongo da irekita, Alondegia itxi arte. Bestalde, **irailaren 1ean, 2an eta 3an, aurrez aurreko inskripzioak** egingo dira Alondegia Gizarte Etxean.

Egun horietan, irailaren 1etik 3ra, sarrerak jasotzeko aukera egongo da Alondegian. Leku librerik geratzekotan, jaialdiaren egunean bertan eskuratu ahal izango da sarrera, eskolako patioan.